

BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

4564

AGINDUA, 2013ko irailaren 26koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Lanpostuak Balioesteko Batzordea osatuko duten kideak izendatzen dituen 2006ko abenduaren 21eko Agindua aldatzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomiadunetako lanpostuen Balorazio Batzordea sortzen du apirilaren 12ko 80/2005 Dekretuak. Justizia eta Herri Administrazio Saileko Funtzio Publikoaren Sailburuordetzari atxikita egongo da batzorde hori, eta helburutzat honako hauek ditu: destino osagarria eta osagarri espezifikoak baloratzeko proposamena egitea, hain zuzen ere Administrazioak lanpostu eta dotazioei esleitutako eginkizun eta atazen analisia eginaz; eta exekuziorako behar diren baldintzak eta betebeharrak finkatzea, lanpostu bakoitza berari dagokion antolaera-egituraren barruan sailkatze aldera.

Dekretu horretako 5. eta 6. artikulua aintzat hartuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Administrazioaren eta langileen izenean Lanpostuak Balioesteko Batzordea osatuko duten kideak izendatzea, titular edo ordezkio modura.

Administrazioaren ordezkariak:

Presidentea:

Juan M.^a Barasorda Goicoechea, (M.^a Luisa Cuesta Arandillaren ordezkio).

Ordezkioa: Estefania Gordoia Rios, (Javier Gil Fernandezaren ordezkio).

Batzordekideak:

Fulgencio Aledo Amoros, (Santiago Martinez Martinez de Lizarduyaren ordezkio).

Ordezkioa: Joseba Perez de Heredia Arbigano, (Fulgencio Aledo Amorosaren ordezkio).

Lide Murua Markaida, (José Luis Arruti Reyren ordezkio).

Nerea Barrenetxea Errasti, (Luis María Rousse Arroitararen ordezkio).

Langileen ordezkariak:

Batzordekidea:

Ana Rosa Najera Campuzano, (Txaro Hueda Diez de Tuestaren ordezkio).

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko irailaren 26a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.